

AUKERA DEZAGUN EKONOMIA ZIRKULAR BATEN ALDE

Posted on 20/02/2015 by Naider

Duela egun batzuk ekonomia zirkularrean berdea izan eta nahian ez hiltzeko bideo bat aurkeztu genizuen. Gaur [Gipsen](#)ri esker, altzariak diseinatzen, fabrikatzen eta banatzen dituen enpresari. jasangarritasunaren eta berrikuntzaren balioen arabera, ekonomia zirkularraren abantailak nabarmentzen dituen enpresa aitzindari baten adibidea partekatzen dugu zurekin.

Enpresa honek oso prozesu berritzailea egiten du produktu baten une desberdinak kudeatzeko orduan, produktuaren bizi-zikloa luzatu eta produktuaren ingurumen-inpaktua minimizatzeko. Prozesu honek abantaila asko ditu erabilgarria ez denean altzariak baztertzeko eta berria erosteko joera klasikoaren aldean. Lau fasetan banatzen da parte hartzen duen zirkunstantziaren arabera:

1. Produktua kaltetuta edo erabilezin dagoenean konpontzeko prozesua.
2. Hasierako kontsumitzaileari zerbitzua ematen ez dionean erabilgarria izango den bezero berri baten bilaketa.
3. Produktuaren erabilera berriak aztertzea, bere funtzio nagusian inongo bezero-motarik erabili ezin duenean.
4. Materialak birziklatzea inongo erabilerarako balio ez duenean, erabili ezin diren produktu horietatik energia sortuz. Birziklatutako material hori azken produktuak egiteko erabiltzen diren erdi-amaitutako produktuak sortzeko erabiltzen da, eta horrela ekonomia zirkular iraunkorra eta karbono neutroa sortzen da.

Gipsenek, laburbilduz, etorkizun ez hain urrunean edozein produkturen bizi-zikloa kudeatzeko modua izango den horretara hurbiltzen gaitu.

There are no comments yet.